



Bilboko Elizbarrutia
Diócesis de Bilbao

BATU ETA BANATU. TODO EN COMÚN **Eleizbarrutiko Zeinua 2015**

1. Eleizbarrutiko alkartasun zeinua ospatzen dogu beste behin be. 2015eko ekitaldiko goiburua Apostoluen Eginetako txatala da: “Fededun guztiak alkartuta bizi ziran, eta dana danentzat eukien: euren lur eta ondasunak salduta, guztien artean banatzen eben dirua, nork zer behar eban” (Eginak 2, 44). Benetako alkartea sorrarazoten dauan alkartasun-sena da.

2. Jardunaldi honetan, ondasunen unibersaltasuna eta kristinauei jagoken jarrera nagusia, hau da, gauzak eta geure burua bera banatu, gogoratuko doguz. Egoera gatxa bizi dogu ekonomia arloan eta ezinbestekoa da gauzak banatzea, inori behar-beharrezkoa falta ez dakion. Horretarako, administrazioen aldetik zerga-erantzukizun zuzen, bardin eta banatzailea suspertzeaz gainera, nahitaezkoak dira gizartean bertan sortzen diran eta ondasunen banaketa zuzenean laguntzen daben beste ekimen batzuk gizarte, herri, eleiz eta alkarte mailan.

3. Eukaristia-alkartasunak, gure artean banatu eta Beragan bat egiten gaituan Jaunaren Gorputzak, gure bizitzan islatu egin behar dau. Eukaristia-alkartasun horrek eusten gaituala banatuko dogu gure bizia eta benetako senidetasuna osatzen daben alderdi eta elementuak, batez be behartsuenen artean, gauza material eta behar-beharrezkoen behartasuna dabenen eta maitasuna, afektua, zainketa, fedea, jaungoikoaren maitasuna, itxaropena... faltan dabezanen artean. Banatu egin behar dogu, bai, baina eukaristia-logikaren arabera, geure burua be konpartitu egin behar dogu.

4. Bizi dogun gizarte eta ekonomia egoeran, nabarmena da ondasunen banaketa okerra, gizarte bazterketa, kultura indibidualista eta axolagabekeriaren hedapena. “Dana danentzat eukien” (Eg 2, 44) dino ebanjelioko pasarteak eta horrek 2015eko eleizbarrutiko zeinuaren goiburuak adierazoten dauanez, “batu eta banatu” eskatzen dau, “ondasunen unibersaltasunaren” kristinau oinarritik, bakarkako eta alkarteko konpromisoa suspertuz. Konbitea be bada, soldata, lana, aurrezkiak, errentak, jaubetzak edo denporea lako ondasun eta baliabideak norbere eta familiaren mesederako ez ezik, guztion onerako erabili daiguzan. Frantzisko Aita Santuak *Evangelii Gaudium* aholku-hitzean dinoanez, alkartasuna berbea “noizbehinkako eskuzabaltasun egintza batzuk baino askoz gehiago da. Elkarte ikuspegia izango duen pentsaera berri bat sortzea da kontua, batzuk ondasunak bereganatzeren gainetik guztien bizitzari lehentasuna emango dion ikuspegia” (EG 188).

5. Gure Autonomia Erkidegoan, 2013ko Caritas-Foessa txostenaren arabera, herritarren %16,4ak bazterketa jasaten dau, %11,1ak moderatua, eta %5,2ak latza.

Gainera, gizarte kalteberatasunak herritarren %45,3an eragiten dau. Euskal Herrian, bazterketak herritarren % 16,4an dau eragina.

6. Krisialdia arintzen doala emoten dau, baina desbardintasuna gero eta larriagoa da. Hazkunde ekonomikoa, bera bakarrik, dagoeneko ez da sarreraren banaketa zuzenagoaren bermea. Desbardintasun eta pobretasunaren azterketak gure banaketa-ereduaren makaltasuna beren-beregi baieztatzen dau, 2013ko Foessa txostenean jasoten danez. Ondasunen unibersaltasuna kristinau etika sozialaren oinarri nagusienetakoa da. Vatikanoko II. Kontzilioan esaten danez: “Jainkoak lurra eta bertan dagoen oro gizaki eta herri guztientzat zuzendu du”, beraz, ondasunen erabileran gizakiak “gauzak, bereak soilik balira bezala ez, baizik eta guztienak balira bezala hartu behar ditu, hau da, bere onerako bakarrik ez, baizik eta besteen onerako direla pentsatuz” (GS 69). *Evangelii Gaudium* aholku-hitzean, Frantzisko Aita Santuak politikaren aparteko egiteko lez aurkezten dau “sarreraren banaketa” (EG 202). Sorospen-egitasmoak beharrezkoak izanda be, erantzun igarokorrak baino ez dira. “Zuzentasunezko hazkundera, hazkunde ekonomikoa baino gehiago da, eta horrek erabakiak, egitasmoak, baliabideak eta prozesuak eskatzen ditu. Horiek behar dira irabazien banaketa hobea, lanpostuen sorkuntza, eta laguntza hutsa gaintzen duen behartsuekiko erabateko sustapena lortzeko” (EG 204). Era berean, pobreziaren kausa estrukturalak konpontzeko, Estaduak “merkatuen erabateko autonomiari eta finantza espekulazioari uko egin eta zuzengabekeria sortzen duten kausa estrukturaleri aurre egin” (EG 202) beharko deutse.

7. Zelan bultzatu oinarri hau gure gaurko gizartean? Zelan inspiratu gure bakarkako eta alkarteko konpromisoa? *Evangelii Gaudium* aholku-hitzak gogoratzen deuskunez, zehaztasunez jokatzen saiatu behar dogu “gizarte-printzipio nagusiak inorengana heltzen ez diren orokortasun huts gerta ez daitezen” (EG 182). Guztion ongizatearen aldeko gizarte zibil artikulatu eta eraikitzailea behar dogu. Ondasunen unibersaltasunaren alde bultzatu daikeguzan jarduerak aitatu doguz ganetik: Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta bizimodu duinerako ezinbesteko diran beste gitxieneko batzuk (hezkuntza, osasuna, etxebizitza, ura, energia, pentsinoak, langabezia) zaindu. Fiskalitate zuzen eta mailakatua. Erantzukizuna, gardentasuna, bardintasuna eta neurritasuna administrazioen gastuetan. Zintzotasuna eta erantzukizuna zerga-betebeharretan. Gizarte osoaren, eta batez be erantzukizun publikoak dabezanen, prestaketa etikoa. Doearen, doakotasunaren logika, borondatezko jarduera, alkartasuna eta karidadea bultzatu. Ondasunen banaketa zuzenagoa bultzatuko daben herri eta gizarte ekimeneko erakundeen sustapena. Bultzada banka etikoari. Alkartasunezko ekonomiaren garapena. Gizarte ikuspegia dauan enpresa-ekimena ahalbideratzea. Mobimentu kooperatibista bultzatzea. Kontsumo arduratsua gure bizitzako arlo desbardinetan. Txiro-tuen, baztertuen, bazterketa jasateko zorian dagozanen aldeko arreta eta garapena.

8. Eleizbarrutiko Zeinua ospatzen dogun egun honetan, gutako bakotxak, bere egoeratik, gauzak banatzeko eta geure burua konpartitzeko, alkar zaintzeko, hasierako alkarteen “dana danentzat” hori gauzatzeko estilo ebanjeliko hau egia bihurtzen lagunduko deuskuen ekimenak bere egin gura ditu. Honan jokatuz, Jaunaren ikasle egiten gaituen jarrera ebanjelikoak garatuko doguz eta Jaungoikoaren Erreinuaren presentziaren anaitasunezko zeinuak gure artean agertzera emoten lagunduko dogu.

Bilbon, 2015eko apirilaren 17an

